



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/06/19

Bizkaiko Foru Aldundiak ez dau laguntzarik edo babesik aurreikusten Bilbao Basket taldearentzat, eta bere egoera fiskala edozein zergadunaren araudira egokituko da

Imanol Pradales Ekonomiaren Garapen eta Lurralde Foru Diputatuak argi itzi dau gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean Aldundiak ez dauela ezelan be aurreikusten Bilbao Basket saskibaloitaldeari laguntza ekonomikoa emoterik, ez diru-laguntzen bitartez ezta babeserako kontratuen bidez be, eta kirol erakunde horren egoera fiskala Bizkaiko Ogasunaren edozein zergadunarentzat indarrean dagon arautegira egokituko dala une oro. Pradalesek Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordearen bileran egin ditu adierazpen horreek, Arturo Aldecoa Talde Mistoaren ordezkariak aurkeztutako agerraldi eskariari erantzunez.

Zehatzago esanez, Aldecoak eskaria egin eban, Unai Rementeria Ahaldun Nagusiak “Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbao Basket taldeari jagokonez datorren denporaldian jarraitu behar dauen estrategia azaldu daian, kategoria galdu ostean”. Batzordekideak “baltzeko gizonak” lurraldearen sustapenari emoten deutesien bultzadea, kirol arloko garrantzia, aurretik taldeak Aldundiaren eskutik laguntzak jaso izana eta, eregiteko egindako inbertsino garrantzitsuaren ostean Bilbao Arena pabiloia oso gitxi erabilteko arriskua aitatu ditu.

Foru Gobernuaren izenean, Imanol Pradalesek ezelango zalantza barik egin dau berba, Unai Rementeriak legealdiaren hasieran egin eban iragarpena berretsiz. Bertan adierazo ebanek, foru aldundiak ez dau ezelan be laguntza ekonomikorik aurreikusiko kirol talde profesionalentzat, ezta lurraldearen turismoa sustatzeko bada be. Pradalesek esan dau Bilbao Basketek bizirik jarraitzea eta goi mailara itzultzea gurako leukela, baina laguntza hori “emozionala” baino ez dala izango esan dau, eta argi eta garbi itzi dau Taldearen zerga zorraren tratamenduari jagokonez, “ganerako zergadunen baldintza berberakaz eta indarrean dagon araudiagaz bat etorrita” tratauko dala. Une honetan ez dagola ezelango hitzarmenik edo babeserako akordiorik be esan dau, eta Foru Aldundiak ez daukala Miribillako pabiloiaren inguruan ezelango zeresanik adierazo dau, titulartasuna udalarena dalako.

Ez da onetsi Larrialdi Zentroaren ganeko Arauz Besteko Proposamena

Gaur goizean egin dan Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordea Talde Mistoaren ordezkariaren beste ekimen bategaz osatu da, Bizkaiko Larrialdien Kudeaketarako Zentro Integrauaren (CEIGE) ganeko Arauz Besteko Proposamenagaz, hain zuzen be. Zerbitzu hori barriro planteetako aukeraren ganeko beste eztabaida eta agerraldi batzuekatz bat etorrita, Arturo Aldecoak proposamena aurkeztu dau, Batzar Nagusiek eskaria egin deioen Foru Aldundiari, CEIGEda, eragindako Saitetako foru beharginak koordinazinarako eta komunikazinarako lurraldeko zentro bakarrean integraz osatzeko”.

Gaur egungo Foru Gobernu eusten daben taldeen (Euzko Abertzaleak eta Euskal

Sozialistak) eta oposizionokoen (EH Bildu, Podemos Bizkaia, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoak) arteko aldea, larrialdiko deiei erantzuteko orduan zentro barriak daukan eraginkortasunaren eta efizientziaren inguruan oinarritzen da. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek adierazoten dabenez, lehen Base Gorria zentroan arreta eskaintzen eben guardek euren betebeharra hobeto egiten dabe medio naturalean, eta zentralitako behargin barriak oposizio bitartez lortuko dabe lanpostua, prestakuntza egokiagaz. Oposizionoko lau taldeek, barriz, esperientzia luzea eta jasotako ezagutza baliozkoa errebindiketan dabe, Base Gorriko beharginak CEIGEn integretako, basoetako suteengaitiko ohartarazpenak eta medio naturaleko beste larrialdi batzuk jasoteko eta koordinetako.

Neurri handian Batzordean eta Osokoan aurretik izandako eztabaidak errepikau dituen argumentuak trukau ostean, azkenean Arauz Besteko Proposamena ez da onetsi, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen kontrako bederatzi botoakaz eta EH Bildu, Podemos Bizkaia, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoaren aldeko seiakaz (EH Bildu taldeko Batzordeko hiru ordezkarietako bat ez bertan da egon).

La Diputación Foral de Bizkaia no contempla ayudas o patrocinios al Club Bilbao Basket, y su situación fiscal se ajustará a la normativa de cualquier contribuyente

El Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha dejado claro esta mañana ante las Juntas Generales de Bizkaia que la Diputación no contempla en ningún caso el apoyo económico al club de baloncesto Bilbao Basket, ya sea en forma de subvenciones o de contratos de patrocinio, y que la situación fiscal de esta entidad deportiva se ajustará en todo momento a la normativa vigente para cualquier contribuyente de la Hacienda vizcaína. Pradales ha realizado esta declaración en el transcurso de una reunión de la Comisión Institucional, de Buen Gobierno y Transparencia, en respuesta a una solicitud de comparecencia del portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa.

En concreto, Aldecoa había presentado una petición para que fuese el Diputado General, Unai Rementeria, el encargado de exponer “la estrategia que piensa seguir la Diputación Foral respecto al club Bilbao Basket en la próxima temporada, tras su descenso de categoría”. El juntero hacía referencia tanto a la relevancia de los “hombres de negro” de cara a la promoción del territorio, a su importancia deportiva, a anteriores apoyos al equipo por parte de la Diputación, y al hecho de que el Pabellón Bilbao Arena pueda quedar infrautilizado tras la importante inversión realizada en su construcción.

En nombre del Gobierno foral, Imanol Pradales se ha mostrado contundente a la hora de ratificar el anuncio realizado por Unai Rementeria al inicio de la legislatura, en el sentido de que el ente foral en ningún caso va a contemplar nuevos apoyos económicos a equipos deportivos profesionales, ni siquiera como forma de promoción turística del territorio. Pradales ha expresado sus mejores deseos de cara a la supervivencia de Bilbao Basket y su regreso a la máxima categoría, pero ha calificado este apoyo como meramente “emocional”, y ha dejado claro que, en lo tocante al tratamiento de la deuda tributaria del Club, éste será tratado “en iguales condiciones al resto de contribuyentes y de acuerdo a la normativa vigente”. También ha ratificado que no existe en la actualidad ningún convenio ni acuerdo de patrocinio en vigor, y ha precisado que la Diputación Foral no tiene nada que decir en torno a la cancha de Miribilla por tratarse de una infraestructura de titularidad municipal.

PROPOSICIÓN NO DE NORMA RECHAZADA EN TORNO AL CENTRO DE EMERGENCIAS

La Comisión Institucional, de Buen Gobierno y Transparencia celebrada esta mañana se ha completado con una segunda iniciativa del representante del Grupo Mixto, una Proposición No de Norma en torno al Centro Integrado de Gestión de Emergencias (CEIGE) de Bizkaia. En línea con anteriores debates y comparecencias sobre el replanteamiento de este servicio, Arturo Aldecoa proponía que las Juntas Generales insten a la Diputación Foral a promover que el CEIGE se complete integrando al personal foral de los Departamentos afectados en un único centro de coordinación y comunicaciones del territorio”.

La discrepancia entre los grupos junteros que sustentan al actual Gobierno foral (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) y los de la oposición (EH Bildu, Podemos Bizkaia, Grupo Popular Vizcaíno y Grupo Mixto) radica en torno a la eficacia y eficiencia del nuevo centro a la hora de atender las llamadas de emergencia. Mientras que nacionalistas y socialistas defienden que los guardas que anteriormente atendían el centro Base Gorria ejercen mejor su función en el medio natural, y que el nuevo personal de centralita accederá al puesto por oposición y con la formación adecuada, los cuatro grupos junteros de la oposición reivindican una larga experiencia y un valioso conocimiento acumulado como argumento a favor de la deseable integración del personal de Base Gorria en el CEIGE, para recoger y coordinar los avisos por incendios forestales y otras emergencias en el medio natural.

Tras un intercambio de argumentos que ha repetido en buena medida anteriores debates tanto en Comisión como en Pleno, la Proposición No de Norma ha quedado finalmente rechazada con los nueve votos en contra de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y los seis a favor de los grupos Popular y Mixto, Podemos y EH Bildu (que ha registrado la ausencia de uno de sus tres representantes en la Comisión).